

## **ZUMARRAGA / Liburutegiaren erabiltzaile izateko prestakuntza ikastaroan ari dira ikasleak**

**Hiru eskolatako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek egingo dute ikastaroa aste honetan eta datorrenean.**

MIRIAM LUKI

Zumarragako Udalak ikasturte honetan ikasleentzako bibliotekako erabiltzaile ikastaroa hasi du. Udal Liburutegian La Salleko, Urretxu-Zumarraga Ikastolako eta Gainzuriko ikasleek jasoko dituzte azalpenak, liburutegia nola erabili behar den. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko 3. eta 4. mailetako ikasleak ari dira parte hartzen dagoeneko abian den ikastaroan. Bisiten helburu nagusia erabiltzaile autonomoak trebatzea da, diote antolatzaileek.

Txikienei liburutegiko sarbidea errazteko xedea du, baita denborapasako eta aisialdiko informazioa bilatzen erakustea ere; biak baitira euren prestakuntzarako ezinbesteko osagaiak.

Programaren bitartez haurrek liburutegiaren funtzionamendua zein den ezagutarazteko asmoa du Udalak. Liburutegiak gaur egun dituen beharren barruan, txikienei liburutegiko funtsek duten dokumentu eta euskarri eskaintza ezagutaraziko dien erabiltzaile-prestakuntza emanez.

Ikastetxeei egindako gonbidapenarekin Udal Liburutegiak eta ikastetxeetako liburutegiek harremana sendotuko dute. Haurrak irakurketara erakartzeko ardura partekatzea ere helburu dugu.

Atzo jarri zuten martxan ikastaroa, eta Gainzuriko ikasleak izan ziren egitasmoan parte hartu duten lehenengoak. Bihar ere eskola publikoko ikasleak izango dira liburutegian. Etzi eta ostiralean La Salle ikastetxeko ikasleen txanda izango da, eta datorren astean Urretxu-Zumarraga Ikastolako ikasleena.

### **Teoria eta jolasa**

Ikastaroa ordubetekoa da. Hogei minutuko aurkezpen teorikoa egiten dute lehenengo, eta gero jolasen bitartez egindako dinamikak. Begiraleak hasierako hogeitau minutuetan liburutegiko materialen erabilpena eta bilaketa egiteko hainbat xehetasun ematen dizkie ikasleei: liburutegiaren historia, ezaugarriak, funtsak, dokumentuak eta euskarriak, Sailkapen Hamartar Unibertsala (SHU) eta aretoaren antolaketa.

Esate baterako, atzo goizean liburutegian erabiltzen dituzten gometxei buruzko zenbait azalpen eman zizkieten Gainzuriko ikasleei. Liburuan itsatsitako gometxaren koloreak liburuaren ezaugarriak zeintzuk diren adierazten du, esplikatu zieten. Haurrak bilaketak egitera abiatu ziren ondoren, haur eta gazte literatura eta dibulgazioko liburuak dauden espazio berezira.

Ondoren, azaldutakoa oinarri hartuta, bilaketa-jolasak egiteari ekin zioten ikasleek. Ordu erdian aretoan barrena ibiliko dira taldetan banatuta, eta super-agente bilakatuko dira. Aztarnei jarraituz proposatutako kasuak argitu beharko dituzte.

Udal Liburutegiaren arduradun Irene Gonzalezek azaldu duenez jarduera bukatutakoan zenbait oparitxo emango dizkiete hurrei, baita super-agente lana bete izanaren txartela ere, super-agente txartela hain zuzen.